

**NON EZKUTATU ZERA,  
ENE MAITEA, NI UTZIRIK SAMINEZ?**

Maiteminduak bere Maiteari bihotz barrutik eginiko oihua. Bihotz zaurituak, zauri egin ondoren ezkutatu zaionari, eginiko oihu larria, bihotzaren garrasia.

San Joan Gurutzekoren *Kantu Espirituala* literaturaren historian inoiz idatzi den maitasun-poemarik ederrenen artean dago. Adituak ez dira ausartzen haren poemak epaitzen, ez baitirudite ia mundu honetakoak. Kritika literarioak haren poesia-lana aztertzeari ihes egiteko tentaldia izan du, haren poesiak kritikaren irizpideez gaindi dauden osagaiak dituelako. Dena dela, lilura ezezagun horren oihan bazterretik bada ere, batzuk saiatu dira Fontiverosko poetaren arrastoari pixka bat jarraitzen. Hauen artean daude Dámaso Alonso eta Jean Baruzi, beste batzuen artean. Baina Marcelino Menéndez Pelayo-k Espainiako Errege Akademiaren sartzeko 1881eko martxoaren 6an egindako hitzaldiaren aipamen bat ekarri nahi nuke hona. Haren poesiaz hau dio hitzez hitz:

“Ya no parece de este mundo, ni es posible medirla con criterios literarios, y eso que es más ardiente de pasión que ninguna poesía profana, y tan elegante y exquisita en la for-

ma, y tan plástica y figurativa como los más valiosos frutos del Renacimiento”.

Aurreko *Karmelen* Kantu Espiritualaren 28. kantari begiratu genion; “Teresatxo Lisieuxkoak maiteen zuena zen, bertso hauetan bere esperientzia ikusten baitzuen eta bere maisuaren, Joan Gurutzekoren, erretraturik hoberena”. Izan ere, ez da harritzekoa, perfektzioaren goi-mailaraino iritsirik, ordura arteko zereginak burutuak ikustea: *Ez dut beste zereginik, hura maitatzea baizik*.

Oraingoa 1. kantari begira jarri gara. Baina ez hurrenez hurren eta sailean aurrera egiteko; ez; batetik bestera jauzika, txoria adarrak adar bezala, jardutea da gure asmoa, irakurle euskaldunari Joan Gurutzekoren hainbat alderdi eder erakutsi nahian, haren poesiaren eta prosaren lilura dastatzera eman nahian.

Jainkoarekin harremanetan, goi-kontenplaziozko giro maitetsuan jaio ziren haren poemak. Ez guztiak batera eta toki berean, pixkaka-pixkaka eta hainbat tokitan baizik. Toledoko komentuko kartzelan, Baezan eta Granadan idatzi zituen bere obrarik gehienak. Toledoko ziega hartan poema asko eta garrantzitsuak. *Kantu Espiritualaren* zatirik handiena; Erroman-tzeak *Super flumina Babylonis* salmoaz idatzitakoa ere barne dela; Isilean jarioan den iturriaren poematxoa (la *fonte que mana y corre*); eta ziur asko, *Gau Ilunaren* kantak.

Eman ditzagun kartzela honen zertzelada batzuk, ziur asko, hainbat irakurlek ez baitute jakingo horren berri.

Karmeldar oinetakodunek, obserbantzia zaharrekoek, gaizki hartu zuten santa Teresaren erreforma eta haren buru zirenak errebeldetzat joz, atxilotu eta betiko desegin eta ito nahi izan zuten karmeldar oinutsen familia erlijiosoa. Beldurra eta izua sortu nahi zuten haietako buruen eta gainerakoen artean. Joan Gurutzeko haien amorruzko zurrunbiloaren erdian gertatu zen.

Toledoko komentuan karmeldar oinetakodunek eduki zuten preso; estua, iluna, hilobi bat bezain itogarria zen ziega ikaragarri batean. Berez, kanpotik zetozen fraideentzat, ostatuz edo pasadan zeudenentzat, eginiko komuna zen, orain san Joan Gurutzekoren ziega bihurtua. Sei oin zabal, eta hamar luze; goian gezileiho bat zuen hiru hatzekoa; han nekez irakur eta idatz zitekeen ezer. Libururik ez zuen eraman haragure Santuak, orduen liturgiako liburua (brebiarioa) izan ezik. Gainera, ez zioten eman ez paperik, lumarik ez tintarik. Nequaren hasieran sartu zuten eta bederatzi hilabete eman zituen bertan, ihes egin zuen arte. Toledoko neguko hotz gogorra eta udako bero kiskalgarria probatu ahal izan zituen. Kartzelazainak ostiral guztietan jaisten zuen komunitateko jantokira, zigortu gisa, guztien aurrean lotsaria jasan zezan, eskapulariorik eta txanorik gabe; jantokiaren erdian lurrean eseririk barau egin behar zuen ogi hutsa eta ura, amaieran aita priorearen zentzaldi latza eta zigorkadak jasotzeko...

Nola idatzi poema horiek ziega hartan eta baldintza haietan? Ez, ez zituen idazten; ezin idatzi, ez baitzuen idazteko modurik ez tresna materialik. Buruan sortzen zituen, eta bihotzean eta buruan buelta asko emanez, oroimenean gorde altxor preziatu gisa. Lehenengo hil haietan dena zen bekozkoa, mehatxua, iraina. Ez zuen inon aurkitzen erruki ez maitasun izpirik. Bai, egundo hutsik egiten ez duena bere barru sakonean zen, ezkutaturik, ihes egin balio bezala. Jesusek gurutzean esandako hitzak etorriko zitzaizkion gogora: *Ene Jainkoa, zergatik utzi nauzu bertan behera?*

Sei hilabete igaro ondoren, zaintzaile berria jarri zioten. Fraide gazte on eta errukitsua. Honek aurreko zaintzailearen jokaera gogorak alde batera utzi zituen, tratu askoz ere hobe eta duinagoa emanez preso gaixoari. Aldatzeko arropa garbiak ekarri zizkion, zatika urratzen eta erortzen zitzaizkion zaharrak bazterturik; noizbehinka ondoko galeriara ateratzen zuen, pixka bat ibili eta haize garbia har zezan. Berehala

ohartu zen zaintzaile gaztea kartzelan zeukatena santua zela. Joan Gurutzekok konfiantza hartu zuen harekin eta behin papera, luma eta tinta eskatu zizkion; deboziozko gauzak zituela oroimenean eta, entretenigarri, haiek paperean jartzea nahiko lukeela. Ekarri zizkion eskatutakoak eta horrela jaio ziren idatziz Joan Gurutzekoren poemarik ederrenetakoak.

Dena dela, orain zaintzailearen aldetik erruki eta gizatasun izpiak sumatzen bazituen ere, ziega haretan Joan Gurutzekoren bizitza oso latza zen. Ahuleziak jota ikusten zuen bere burua; beldur zen bertan ez ote zen hilko. Ihes egitea zen erremedioa. Otoitzean barruko eragin bizi-biziak sentitzen zituen ihes egiteko. Jaunarekin sekretuan zerabiltzan horretarako bideak. Zaintzaileari arropa saretuak pasaratzeko jostorratza eta haria eskatu zizkion. Arropa zaharra pasaratzeko ez ezik, beste zerbaiterako ere baliatu zuen haria. Galeriara irteke aukera izan zuen batean, hari-muturrean harritxo bat lotu eta leihotik lurrera zegoen distantzia neurtu zuen. Horren ondoren, gelako bi manta zahar bata besteari loturik, hariarekin neurtu zituen. Bi manten luzeraz eta gorputzaren altueraz lurrera iritsiko zen doi-doi. Beste zertxobait ere bazuen egiteko: gelako ateko giltzarrapoen torlojuak bultzada txiki batekin zabaltzeko eran lasaitu behar zituen. Lortu zuen helburua, ihes egitea. Behin lurrean, abitua jantzi zuen, leihotik zintzilikatu aurretik lurrera bota zuena. Goizaldean Toledoko San Jose moja karmeldar oinutsen komentura iritsi zen. Atea itxita zegoen, baina dei egin zuen eta baita ireki ere. Hain zuzen ere, moja bat zegoen une hartan oso gaixo eta aitor-entzulea nahi zuen. Horrela, klausuran sartu zuten Santua. Mojak harriturik geratu ziren, haren itxura ikusita; hilda bezala zegoen, guztiz jota. Gero, besteok... ihes egindakoaren bila etorri zirenean, mojen klausura barruan ongi ezkutaturik zegoen. Garbitu, jantzi eta zer bait harturik, suspertu zen eta kartzelako gorabeherak eta ihesa kontatu zizkien bizi-bizi; eta azkenik, buruz errexitatu zituen berri-berri zekartzan hainbat kanta, horien ar-

tean, Erromantzeak Hirutasun Santuaz: *Hasieran bazen Hitza*. Eta Kantu Espirituala: *Non ezkutatu zera, / ene Maitea, ni utzirik saminez*.

Horrela, mojekin eta fraideekin elkarrizketan, osatu ziren haren poema asko eta batez ere prosazko obra handiak. Haren poemak entzunik, liluraturik geratzen ziren, beste hots bat zutelako, hots zerutarra, hemen ordura arte entzun gabea. Baina poema haiek barnean doktrinazko eduki sakona zuten, eta mojen eta fraideen galderei eta jakin-minari erantzunez, kanta haien barrunbea aztertu eta azaldu beharrean izan zen prosazko lanetan. Eta goazen, orain, *Kantu Espiritualaren* 1. kanta euskarara itzulirik ematera:

#### GAIAREN HARIA

1. Kanta hauen jarraibidea, arima Jainkoa zerbitzaten hasten denetik perfekzioaren goi-mailaraino, hau da, ezkontza espiritualeraino, iristen den artekoa da. Beraz, kanta horietan, helburu horretaraino iritsi bitartean arimak igaro behar dituen hiru egoerak edo jarduera espiritualeko hiru bideak azaltzen dira: garbitzailea, argitzailea eta elkartzailea, eta hauetako bakoitzari dagozkion ezaugarri eta ondorioak.

2. Lehenengoetan hasiberriez, hau da, bide garbitzaileaz, ari da. Ondorengoetan, aurreratuez; hor ematen da elkartze espiritualerako ezkon-hitza, eta hau bide argitzailea da. Hauen hurrengo datozenak bide elkartzaileaz, perfekziora iritsitakoetz, ari dira; hor gertatzen da ezkontza espirituala. Bide elkartzailea, perfekziora iritsitakoena, bide argitzailearen, hau da, aurreratuen, hurrengo datorena da. Azken kantetan, berriz, zoriondunen

egoeraz ari da, arimak perfekzio-egoera hartan soilik izan nahi lukeenaz.

**HASIERA EMATEN ZAIO EMAZTEAREN ETA KRISTO  
SENARRAREN ARTEKO MAITE-KANTEN AZALPENARI**

**OHARPENA**

1. Arima zertara behartua dagoen konturaturik, *bere egunak mugatuak dituela* ikusirik (Job 14, 5), *betiko bizirako bidea estua* (Mt 7, 14), *zintzoa nekez salbatzen dela* (1 P 4, 18), munduko gauzak hutsal eta gezurrezkoak direla, *dena bukatzen eta galtzen dela joanean doan ura bezala* (2 Sm 14, 14), bizialdia ezbaikoa dela, eman beharreko kontua estu eta zorrotza, galtzea oso erraza, betiko salbamena, berriz, oso zaila; ezagutzen du, bestalde, Jainkoarekin zor handia duela, hark beretzat soil-soilik egina denez gero; horregatik bere bizi osoko zerbitzua zor diola; era berean, Jainkoak berrerosia denez, gainerako guztia eta bere bihotzeko maitasunez erantzun beharra duela; eta beste hainbat eta hainbat mesede ere jaio baino lehenagotik Jainkoagandik hartuak dituenek, Jainkoarekin zorrean dela; ikusten du, gainera, bere bizialdi luze bat alferrik joan zaiola, eta horren guztiaren arrazoi eta kontua eman beharko duela, bai lehenengoarena bai azkenekoarena, *azken txanpona ordaindu arte* (Mt 5, 26), *Jainkoak kriseilu piztuz Jerusalem araka dezanean* (So 1, 12), *eta berandu dela eta, agian, azken eguna* (Mt 20, 6); hainbeste gaitz eta kalte konpondu ahal izateko, batez ere Jainkoa haserre eta ezkutatua duela nabariturik, arima kreaturen artean sarturik guztiz ahaztu de-

lako Jainkoaz. Eta izuak eta barruko bihozminak jota hain hondamendi eta arrisku handiagatik, gauza guztiei uko eginez, kontu guztiak alde batera utziz, egunik ez ordurik atzeratu gabe, jada Jainkoaganako maitasunez den bihotz zauritutik irteniko aldarriz eta intziriz, bere Maiteari deika hasten zaio, honela dioela:

### 1. KANTA

Emaztea

*Non ezkutatu zera,  
ene maitea, ni utzirik saminez?  
alde orein antzera  
niri zauri eginez  
bila irten eta joana zinen ihes.*

### AZALPENA

2. Lehen kanta honetan, arimak, Jainkoaren Semearekin, bere Senarrarekin, maitemindurik eta harekin ikuste argi eta aurrez-aurrekoaz bat egin nahirik, bere maitasun-desirak agertzen ditu. Zer dela-eta alde egin dion, diotso, batez ere, berari maitez zauri eginez, horrexegatik kreatura guztiak eta bere burua ere alde batera utzi baitzitu; zer dela-eta sufritu behar oraindik bere Maitea urruti izatea, behingoz haragizko lokarriak hautsi eta betiko aintzan hartaz gozatu beharrean; hortaz hau dio:

*Non ezkutatu zera,*

3. Eta hau esango balu bezala da: Jainko Semea, ene Maitea, ager iezadazu, arren, ezkutaturik zauden tokia. Honekin, bere Jainko-izatea ager diezaiola eskatzen dio; Jainkoaren Semea, san Joanez dioenez (1, 18), ezkutaturik dagoen tokia Aitaren altzoa, hau da, Jainko-izatea bera baita; eta hau giza ikusmenetik kanpo dago eta giza adimen ororentzat ezkutaturik; horregatik Isaiasek (45, 15), Jainkoarekin hitz eginez, hau zioen: *Jainko ezkutua zara zu, benetan*. Hortaz, gogoan izan behar da, arima batek bizi honetan izan ditzakeen Jainkoaren agerpen eta presentziarik handienak eta haren albisterik gorenak izanik ere, hura ez dela Jainkoa bere izatean den bera, eta ez duela harekin zerikusirik, egiaz, oraindik arimarentzat ezkutaturik dagoelako, eta horregatik beti komeni zaio arimari, handitasun horien guztien gainetik, Jainkoa beretzat ezkutaturik izatea eta ezkutaturik denaren bila aritzea, esanez: *Non ezkutatu zera?* Izan ere, ez goi-agerpena, ez Jainkoa bertan dela sentitzea ez dira haren graziatzko presentziaren seinale; ezta lehortasuna, ez halakorik ez izatea Jauna bertan ez izatearen seinale ere. Horregatik dio Job profetak (9, 11): *Etortzen bazait, ez dut ikusiko; joaten bada, ez dut ulertuko*.

4. Horretan ulertu behar da, arimak goi-agerpen, sentimendu edo albiste espiritualak izan arren, ez duela uste izan behar, horratik, sentitzen duena Jainkoa bera edukitzea edo Hura bere izatean argi eta garbi ikustea denik, hura Jainkoa gehiago edukitzea edota Jainkoagan barrurago izatea denik, gauzarik handiena bada ere; eta alderantziz: goi-agerpen sentigarri eta espiritualak falta izanik, lehortasun, ilunpe eta bertan behera gera-



tuko balitz ere, ez du uste izan behar, horratik, Jainkoa berarekin horrela bestela baino gutxiago dagoenik, seinale horretatik ez baitago ziur jakiterik Jainkoaren grazian dagoen, ezta bestetik ere haren graziarik gabe dagoenik, Jakintsuak hau esaten baitu (Koh 9, 1): *Inork ez daki Jainkoaren aurrean onesgarri den ala gaitzesgarri*. Beraz, arimak bertso-lerro honetan egiten duen ahalegin nagusia ez da bihotzeko eta sentigarria den denbozia eskatzea soilik, horretan ez baitago Maitea norberarekin dagoelako ziurtasun ez argitasunik bizitza honetan; batez ere, Hura den bezala, argi eta garbi ikustea eta haren ziurtasuna eta poza izatea beste bizitzan, hori da desira duena.

5. Hauxe berau esan nahi zuen Kantarik Ede-  
reneko Emazteak (1, 6), Jainko Semearen jainko-  
tasunarekin, bere Maitearekin, bat egin nahirik,  
Aitari eskatu zionean: *Erakuts iezadazu nongo lar-  
retan ibiltzen zaren, non egiten duzun eguerdiko  
loa*. Nongo larretan ibiltzen zen erakusteko eska-  
tzea Jainko Semearen izatea bera erakuts ziezaiola  
eskatzea zen, Aita ez baita beste inon bazkatzen  
bere Seme bakarrarengan baizik, Aitaren aintza  
da, izan ere; eta non etzaten zen erakuts ziezaiola  
eskatzea, gauza bera eskatzea zen, Semea Aitaren  
atsegintokia besterik ez baita, eta Aita ez da etza-  
ten beste inon, ezta ez da sartzen beste inon, bere  
Seme maitearengan baizik. Honengan, bai,  
Jainkoa, den guzti-guztia etzaten da, bere izate  
guztia hari emanez eguerdian, hau da, betirau-  
nean, betidanik ari baita sortzen eta betidanik du  
sorturik. Aita aintza amaigabeaz bazkatzen den  
Jainko Semearen, Maitearen, larre hau, eta bular  
guri hau, maitasun-atsegin amaigabeaz etzaleku

duena, giza begi eta kreatura orentzat sakonean gorderik dagoena, horixe da, bada, hemen arimak, Emazteak, eskatzen duena, hau dioenean: *Non ezkutatu zera?*

6. Eta arima egarritu hau bere Maitea aurkitzera eta harekin maitasunez bat egitera etor dadin bizi honetan, hemen ahal den eta haren egarria bizi honetan tanta honetaz gozatuz arin daitekeen heinean, ongi etorriko da, bere Maiteari eskatzen dienez gero, honen ordezkari guk geuk erantzutea, ezkutaturik dagoen tokirik ziurrena erakutsiz, han aurki dezan benetan bizi honetan aurki daitekeen perfektiorik eta gozotasunik handienaz, eta horrela lagun-taldean lorratzetan batera eta bestera alferrik bide galduetan ibil ez dadin.

Gogoan izan behar da horretarako, Jainko Semea, Aitarekin eta Espiritu Santuarekin batera, esentziaz eta presentziaz, arimaren barru-barruan dagoela ezkutaturik; hortaz, aurkituko duen arimari, bihotzez eta borondatez, gauza guztietatik irtetea komeni zaio eta bildutasun oso-osoan bere baitan sartzea, gainerako gauza guztiak izango ez balira bezala. Horregatik zioen san Agustinek, Jainkoarekin bakarrizketan ari zela: *Ez zintudan aurkitzen, Jauna, kanpoan, okerreko lekuan nobilelako zure bila, barruan baitzeunden*. Jainkoa ariman dago, bada, ezkutaturik, eta hor jardun behar du bila arima kontenplatibo onak, esanez: *Non ezkutatu zera?*

7. Oi, arima txit ederra kreatura guztien artean, zure Maitea non den hain desira gartsuz jakin nahi zenukeena, hura aurkitu eta berarekin bat egiteko! Esan zaizu jadanik zu zeu zarela hura bizi den le-

kua, ezkutaturik den bakartegi eta gordelekua; egiaz poztekoa eta alai egotekoa da zuretzat zure on eta itxaropen guztia zeugandik hain hurbil izatea, zeugan izatea, edo, hobeki esan, zuk hura gabe izaterik ez izatea. Hara, dio Jesusek berak (Lk 17, 21), *Jainkoaren erreinua zuen erdian da*. Eta haren zerbitzari san Paulok (2 Ko 6, 16): *Zuek zarete Jainko biziaren tenpluak*.

8. Poz handia da arimarentzat, Jainkoak ez duela inoiz ere alde egiten arimatik jakitea, ezta bekatu astunean dagoenean ere; hortaz, are gutxiago grazian dagoenean.

Zer besterik nahi duzu, ene arima!, eta zer gehiago bilatzen duzu zeugandik kanpo, zeure barruan baitituzu zeure ondasunak, zeure atseginak, zeure poza, zeure asealdia eta zeure erreinua, hots, zeure Maitea, zure arimak desira eta bilatzen duena? Goza eta poz zaitez berarekin zeure barne-bildutasunean, hain hurbil baituzu. Hor maite ezazu, hor adora ezazu, eta ez ezazu jo haren bila zeugandik kanpo, arreta galdurik eta nekatu amaituko baituzu, zeure barruan baino ziurrago, lasterrago, eta hurbilago ez baituzu aurkituko ezta hartaz gozatuko ere. Dena dela, jakizu zure barruan egon arren, ezkutaturik dagoela. Gauza handia da, hala ere, non dagoen ezkutaturik jakitea, bide onetik hantxe eta ez beste inon bilatzeko. Eta hau da zuk, arima horrek hemen eskatzen duzuna ere, bihotzez eta maiteki diozunean: *Non ezkutatu zera?*

9. Baina oraindik hau diozu: Nire arimak maite duena nigan badago, nola ez dut aurkitzen ez sumatzen? Hori ezkutaturik dagoelako da, eta zu ez

zara ezkututzen era berean hura aurkitzeko eta sumatzeko. Izan ere, ezkutaturik den gauza aurkitu nahi duenak era berean ezkutaturik egon behar du eta hura ezkutaturik dagoen tokiraino sartu, eta, aurki dezanean, bera ere hura bezain ezkutaturik egongo da. Horrela, bada, zure Senar maitea *zure arimako landan ezkutaturik den altxorra denez gero, merkatari zuburrak dituen guztiak barren truke saldu baitzituen* (Mt 13, 44), zuk zeureganatuko baduzu, behar-beharrezkoa zaizu, zeure guztiak ahazturik eta sorkari guztietatik aldendurik, *espirituaren zeure barruko gelan sartzea* (Mt 6, 6), *eta, atea itxirik*, hau da, zeure borondatea gauza guztiei itxirik, *ezkutuan zeure Aitari otoitz egitea*; eta horrela, harekin ezkutaturik, sentituko duzu ezkutuan, eta maiteko duzu eta gozatuko ezkutuan, eta atsegin hartuko duzu ezkutuan berarekin, hau da, esan eta senti daitekeenaz gaindi.

10. Ea, bada, ene arima eder hori! Orain bada-kizu bihotz-bihotzeko duzun Maitea zure barruan ezkutaturik bizi dela; saia zaitetz ongi ezkutaturik berarekin egoten, eta zeure barruan besarkatuko duzu eta bihotzeko maitasuna sentituko duzu. Hain zuzen ere, gordeleku horretara dei egiten dizu berak, Isaiasen bidez (26, 20): *Ea, zoaz, sar zaitetz zeure geletan, ateak itxi barrutik*, hau da, itxi zeure ahalmen guztiak kreatura orori, ezkuta zaitetz pixka bat aldi batean, hau da, bizi honetako aldian. Bada, *bizi labur honetan*, ene arima, *gordeetzen baduzu zeure bihotza arreta handiz*, Jakintsuak dioenez (Es 4, 23), ezbairik gabe, Jainkoak emango dizu aurrerago Isaiasen bidez dioena (45, 3): *Emango dizkizut gordeak diren aberastasunak, eta isileko gauzak eta misterioak*

*agertuko*. Isilekoen izatea Jainkoa bera da, hura baita fedearen edukia eta haren adierazpena, eta fedea baita isilekoa eta misterioa. Eta fedea gordean eta ezkutuan duen hori, Jainkoaren perfekzioa da, san Paulok dioenez (1 Ko 13, 10), hori errebela eta ager dadinean, orduan agertuko zaizkio arimari isilekoen izatea eta misterioak.

Baina bizi iheskor honetan, al bait ezkutuen gordeta ere, bestean bezain garbi ikustera iritsi ez arren, hala ere, harkaitz barnean gordeko balitz, Moises bezala (Ir 33, 2223), Jainko Semearen egiazko imitazioa baita, arimaren Senarrarena, *Jainkoak bere eskuin eskuaz babesten duela, merzeko luke Jainkoaren bizkarraldea ikustea* behintzat; hori da, izan ere, bizi honetan maitasunez Jainko Semearekin, bere Senarrarekin, bat-egite eta harengan transformatzerainoko perfekzioa iristea; orduan harekin hain bat eginik eta haren misterioetan hain jantzia eta eskolatua ikusiko luke bere burua, non, bizi honetan hura ezagutzeari dagokionez, ez bailuke gehiago esango: *Non ezkutatu zara?*

11. Esana geratzen da, ene arima!, nola jokatu behar duzun Maitea aurkitzeko zeure gordelekuan. Baina, berriro entzun nahi baduzu, entzun mamiz beteriko eta egia atzemanezineko hitz bat: fedez eta maitasunez hura bilatzea da, zeure atsegirik ezertan bilatzen ez duzula, ezta ahogozatu eta jakin behar duzun baino gehiago jakin nahi ez duzula; horiek baitira ez dakizun lekuraino, Jainko ezkutuaganaino, gidatuko zaituzten itsuaurrekoak. Fedea da, izan ere, esan dugun isilekoa, arimak Jainkoagana joateko dituen oinak; maitasuna, berriz, hara bideratzen duen gi-

daria; eta bera misterio eta fedeko sekretuak erabiltzen eta eskuztatzen ari dela, mereziko du maitasunak ager diezaiola fedea barnean duena, hots, bihotz-bihotzez berak maite duen Senarra; bizi honetan berariazko grazia baten bidez, Jainkoarekin bat egitean, esan dugunez, eta bestean zorion betean, aurrez aurre hartaz gozatzean; honezkero, ez inola ere ezkutuan. Baina, bien bitartean, arima aipaturiko bat-egite horretara iritsi arren, bizi honetan irits daitekeen egoerarik gorenera iritsi arren, esan dugunez, oraindik arimarentzat Aitaren altzoan ezkutaturik dagoenez gero, beste bizian bezala hartaz gozatzea nahiko bailuke berak, oraindik honela esango du: *Non ezkutatu zara?*

12. Oso ongi ari zara, ene arima!, beti ezkutuan haren bila, Jainkoa gorensten baituzu eta asko gerturatzeko baitzara harengana irits daitezkeen gauza guztietarik goren eta sakontzat hura izanez. Eta, beraz, ez jaramonik egin zure ahalmenei hein batean edo guztian atzeman dezaketenei. Esan nahi dut, ez dezazula Jainkoaz ulertzen dituzunetan atseginik nahi izan, hartaz ulertzen ez dituzunetan baizik; eta ez zaitez inoiz gelditu Jainkoaz uler eta senti dezakezuna maitatzen eta hartan atsegin hartzen; maita ezazu, ordea, hartaz ulertu eta sentitu ezin duzuna eta har horretan atsegin; horixe baita, esan dugunez, fedez bilatzea. Izan ere, Jainkoa ulertezina eta ezkutukoa da, hau ere esan dugunez, eta aurkitzen, sentitzen eta ulertzen ezin izango duzu, baina beti izan behar duzu ezkututzat eta ezkutaturik eta ezkutuan otseindu behar duzu. Eta ez zaitez izan Jainkoaz iritzi kasarra duten zentzugabe askoren antzeko, hura

ulertzen, gozaten edo sentitzen ez dutenean, Jainkoa urrunago eta ezkutuago dagoela uste baitute; egia, berriz, kontrakoa da: zenbat eta lausoagoa izan haren ulertzea, hainbat gehiago hurbiltzen dira harengana, bada, David profetak dioenez (Sal 17, 12): *Gordelekutzat hartu zituen ilunpeak*. Horrela, harengana hurbiltzerakoan, nahitaez sentitu behar ilunpea zure begi ahulak. Ongi ari zara, bada, zoritxarrean nahiz zorion espiritual eta materialean, Jainkoa ezkututzat izatean, eta hari honela dei egitean: *Non ezkutatu zera,*

*Ene Maitea, ni utzirik saminez?*

13. Ene Maitea deitzen dio, bere erregura hobeki erakartzeko, Jainkoak berez-berez entzuten baititu maitalearen eskariak, bera maitatua izan dadinean. Horrela dio berak san Joanen bidez (15, 7): *Nigan bazaudete, eskatu nahi duzuen, eta izango duzue*. Arimak egiaz esan ahal izango dio, bada, Maitea, bera harekin guttiz bat eginik dagoenean, bere beronengandik at ezertxok ere bihotza lotzen ez dionean; eta horrela, etengabe izango du bere pentsamendua haren gan. Gauzak horrela ez zirelako, esan baitzion Dalilak Sansoni (Ep 16, 15): *Nola diozu maite nauzula, zure bihotza nirekin ez delarik*. Bihotza esatean, pentsamendua eta maitasuna esan nahi dira. Batzuek, hortaz, Senarrari Maitea deitzen diote, baina ez da benetan Maitea, bihotza osorik beragan ez dutelako; horregatik, haien eskariak ez du halako indarririk Jainkoaren aurrean; horregatik ez dute lortzen berehala eskatzen dutena, otoitzean ekin eta ekin eginik, gogoia sarri-

sarri Jainkoagan izan artean, eta bihotza maitasun-indarrez osoago harekin bat ez dagoen artean; Jainkoagandik ez baita ezer iristen, maitasunez izan ezik.

14. Gero hau dio: Ni utzirik saminez; gogoan izatekoa da, Maitea berarekin ez izateak etengabeko samina dakarkiola maitaleari, hura izan ezik ez baitu ezer maite, harengan izan ezik ez baitu ezertan atsedunik ez bihotz-altxagarririk. Hortxe izango da ezagun nork maite duen benetan Jainkoa, harengan izan ezik ezertaz ez poztean. Baina, zer diot poztu? Guztiak batera edukita ere, ez baitu pozik izango; alderantziz, haietatik zenbat eta gehiago eduki, atsekabetuago izango da; bihotzeko poza ez baitago gauzak edukitzean, haietaz guztietaz biluzik egotean eta bihotzeko pobretasunean baizik. Maitasunaren perfekzioa horretan dagoelako, hau da, Jainkoa oso batera eta berariazko graziaz izatean dagoelako, horra iritsi denean, arima nolabait esateko pozik bizi da, baina ez guztiz aserik, Davidek (Sal. 16, 15), perfekzio handian izan arren, zeruan lortuko zuelako esperantza baitzuen; hau dio: *Zure aintza ager dadinean, zure izateaz aseko naiz.*

Eta horrela, ez zaizkio nahikoa bizi honetan arimak lor ditzakeen bake, lasaitasun eta bihotzeko poza, bere barruan saminik ez izateko, samin hori bakezkoa eta neke gabea bada ere, falta denaren itxaropenean. Izan ere, samina itxaropenaren laguna da; Apostoluak berak eta gainerakoek zutela zioena bezalakoa (Erm 8, 23): *Gu geu ere, espiritua leben-dohaintzat hartu dugunok, geure baitan saminez gaude Jainkoak bere seme-alaba*



*noiz egingo.* Samin hau du, bada, arimak bere baitan bihotz maiteminduan; maitasunak zauritzen duen bihotzean, han baita zauriturik beti intzirika han ez dagoenaren sentimenduan; batez ere Maitearekiko harreman atsegin eta gozoa dastatu ondoren, hark alde egin ondoren, bat-batean baka-  
rrik eta lehorturik geratzen denean. Horregatik dio ondoren:

*Alde orein antzera.*

15. Azpimarratzekoa da, Kantarik Ederrenean (2, 9) Emazteak Senarrari oreina eta basahuntza deitzen diola, esanez: *Ene Maitea basahuntza bezalakoa da eta oreinkumearen antzekoa.* Eta hau, ez bakarrik, bakana eta bakartia izanik, lagunengandik ihes egiten duelako, oreinak bezala, baita ezkutatze nahiz agertzeko duen zolitasunagatik ere; Maiteak arima maitaleei, haiek pozteko eta indarberritzeko, egiten dizkien bisitetan bezala, alde batetik, eta bisita haien ondoren sentiarazten dien ezkutatze eta urruntzeetan bezala, bestetik, probatzeko, apalarazteko eta irakasteko sentiarazten dietetan; horregatik, urruntzea samin handiagoz sentiarazten die, orain hemen adierazten duenez:

*Niri zauri eginez.*

16. Hau esatea bezala da: zu nirekin ez izateagatik eskuarki izan ohi dudan samin eta oinazea gutxi balitz bezala, orain maitasunez are gehiago zauritzen nauzu zeure azkonaz eta zu ikusteko grina eta irrika nigan areagotuz, ihes zoaz oreina-

ren zalutasunez eta ez duzu uzten besarka zaitzadana unetxo batean ere.

17. Bertso-lerro hau argiago azaltzeko, jakin oraindik beste gauza bat: Jainkoak arimari, zauritzeko eta maitasunez sutzeko, egiten dizkion era askotako bisitez gain, maitasun-ukitu kartsuak egin ohi dizkio, suzko azkonak bezala zauritzen eta arima zulatzen eta maitasun-sutan guztiz erreta uzten dutenak. Hauei deitzen zaizkie, zorrozki hitz eginik, maitasun-zauriak, eta hauetaz hitz egiten du arimak hemen. Hauek bihotza maiteminez gori-gori jartzen dute, sutan eta maitasun-garrez erretzeraino; hainbestearaino, non gar hartan desegiten dela baitirudi, eta bere senetik irtenaraziz guztiz eraberritzen da beste sorkari bat izatera etorriz, fenix hegaztia bezala erre eta berriro pitzen baita. Honetaz mintzo da Dabid (Sal 72, 2122) eta hau dio: *Sugartu zen nire bihotza, eta mudatu dira nire giltzurrunak, eta ni ezereztua izan naitz, nola ez dakidala.*

18. Profetak hemen giltzurrun izenez adierazten dituen gutizia eta zalekeriak, guztiak desegiten dira eta jainkozko bihurtzen bihotz barruko sugar haietan. Eta arima maitasunez urtzen da, maitatzeaz baizik ez dakiela. Eta une honetan gertatzen da giltzurrun hauen urtzea Jainkoa ikustearren oinaze eta antsia handitan; maitasunak berarekin darabilen zorroztasuna arimari jasanezina iruditzeraino; hau ez, hala ere, zauriturik utzi duelako (zauri hauek berak osasuntzat jotzen baititu), maiteminetan utzi duelako eta ausarkiago zauritu ez zuelako baizik, guztiz hiltzeraino eta horrela elkar ikusteko eta biak elkartzeko guztizko maitasunean beste bizitzan. Beraz, hark bere minaren handia

adierazi, dio: *Niri zauri eginez*, hau da, ni zauriturik utziz, zukanako maitementan hiltzorian utziz, oreina bezain bizkor ezkutatu zinen.

19. Sentimendu hau neurrigabea izaten da, Jainkoak arimari egiten dion maitasun-zauri hartan maitezko desira bat-batean pizten delako, Maitearen ukitua izan ondoren hartaz jabetzeko desira. Eta era berean bat-batean sentitzen du hark ihes egin diola eta ez duela oraingoz hartaz jabetzerik, nahi lukeen bezala; horrela sentitzen du une berean absentzia haren samina; izan ere, bisita hauek ez dira Jainkoak, arimari, poz eta atsegin emateko egiten dizkionak bezalakoak; hauek sendatzeko baino zauritzeko gehiago egiten ditu; pozteko baino samintzeko gehiago, Jainkoaren albiste gehiago pizteko, haren desira areagotzeko eta, beraz, Jainkoa ikusteko mina eta antsia isiotzeko izaten baitira.

Hauei maitezko zauri espiritualak deritze, eta gozo-gozoak eta desiragarriak zaizkio arimari; horregatik nahiko luke berak zaxtada hauen artean etengabe hiltzen egotea, bere baitatik irtenarazten eta Jainkoagan sarrarazten dutelako. Hori xe adierazten du berak hurrengo bertso-lerroan, esanez:

*Bila irten eta joana zinen ihes.*

20. Maitezko zaurietarako ez dago botikarik, zauritu zuenaren aldean izan ezik; horregatik, arima zauritu hau, suaren indarrez, bere Maitearen atzetik irten zen, zauritu zuenaren atzetik, eragin zion zauria senda ziezaiola oihu eginez.

Jakin beharrekoa da, espiritualki irtete hau bi erataraz ulertzen dela hemen: bata, gauza guztietatik irtetea da, eta hori gauza guztiak gorrotatuz eta gutxietsiz egiten da; bestea, berriz, bere baitatik irtetea bere burua ahaztuz, eta hori Jainkoa maitatuz egiten da. Izan ere, hark hemen esaten den eran arima jotzen duenean, hain gora jasotzen du, ez bakarrik bere burua ahaztuz bere baitatik irtenarazten baitu, baita bere erro, modu eta joera naturaletatik ere, Jainkoaz oihuka galde eginez. Eta hortaz, hau esango balu bezala da: Ene Maitea, zure ukitu eta maitezko zauri hartan atera zenuen nire arima, ez bakarrik gauza guztietatik, neure baitatik ere bai eta irtenarazi nauzu (benetan gorputzetik ere ateratzen duela baitirudi), eta zure galdez oihuka jaso ninduzun, zurekin bat egiteko, jadanik orotatik askaturik nagoela.

21. *Eta joana zinen ibes*; hau esango balu bezala: zu nirekin izateaz gozatu nahi nuen, eta ez zintudan aurkitu, eta batetik askatua izan nintzen eta besteari eskurik ezarri gabe, maitementan ez zugar ez neugan euskarririk ez nuela. Hemen Maitearen arrastoan irtetea deritzanari, Kantarik Ederreneko Emazteak (3, 2; 5, 7) jaikitzea deritza: *Jaikiko naiz eta biriaren inguruan, kale eta plazetan bilatuko dut nire bihotzak maite duena. Bilatu dut, dio, eta ez dut aurkitu, kolpatu eta zauriz bete naute*. Emaztea jaikitzeak esan nahi du han, espiritualki hitz eginez, behetik gora joan zela, hemengo irteteak esan nahi duen gauza bera, hau da: bere modutik eta behe-mailako maitasunetik goi-mailako Jainkoaren maitasunera irteten dela.

Baina Emazteak dio han zauriturik geratu zela, ez zuelako Maitea aurkitu; eta hemen ere arimak

dio maitasunez zauriturik dagoela, eta horrela utzi zuela. Horregatik, maitemindua beti bizi da saminez maite duena berarekin ez denean, bera maiteari emana baitago jada, egin duen eskaintzaren ordainaren zain, eta ordaina Maitea berari ematea izango da, eta oraindik ez zaio ematen; eta jadanik gauza guztiak eta bere burua ere Maiteagatik beretzat galduak izanik, ez du aurkitu bere galeraren ordezkotako irabazirik, bere bihotzak maite duena falta baitzaio.

22. Jainko-absentziaren samin eta sentimendua, jainkozko zauri hauek dituzten unean, hain da handia perfekziora iritsi direnentzat, Jaunak eutsiko ez balie, hilko bailirateke ziur; izan ere, borondatearen dastamena fin eta espiritua garbi eta Jainkoarentzat prest-prest dutenez, eta esanda dagoenean ezer baino nahiago duten Jainko-maitasunaren gozotasunetik zertxobait probatzera eman zaienez, ezin handiagoa da sufrimendua; bitartetik bada ere, ondasun harrigarria erakusten zaie eta eman ez; beraz, esanezin ahalakoa da samina eta oinazea.

Honezkero, neure aldetik ez dut ezer gehituko. Irakurlea euskaraz eman dugun san Joan Gurutzekoren testuan murgildu bada, goza dezala barneko bidaia espiritual honetan.

*Luis Baraiazarra Txertudi*